



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/11/29

## **Bizkaiak Atzerritarren Barneratze Zentroen itxiera eskatu dau**

Bizkaiko Batzar Nagusietako Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Batzordeak, Estaduan dagozan Atzerritarren zazpi Barneratze Zentroak (CIE) ixtea eskatzea onartu dau gaur gehiengo osoz. EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bildu taldeak Batzarretako Podemos Bizkaia taldeak aurkeztu dauen arauz besteko proposamenaren alde agertu dira. Proposamen horretan “giza eskubideen zapaltze larria” salatzen da. PP eta talde Mistoak, barriz, itxieraren kontra agertu dira.

Talde morearen ekimena, Bartzelonako CIEan izandako gertakari larriak ezagutu eta egun gitxira erregistratu zan Batzar Nagusietan. Bertan, 70 pertsonak protestea egin eben “bihozbako” baldintzak zirala eta, eta salaketa horreek, aurretik Alucheko zentroan izandakoei gehitu behar jakez. Mikel Isasi Podemos Bizkaia taldeko batzordekidearen eretxiz, kasu horreek, “tratu duina” eskatzen ari diran pertsonak jasaten dituen “bihozbako” baldintzen adibide “dramatiko” bi dira. “Giza Eskubideen urraketa argia eta garbia dan egoera bidebakoa eta jasan ezina” erakusten dabe.

Podemos taldeko batzordekideak, Estaduan paper barik sartzen diran pertsonen gaineko “begiradea aldatzea” eskatu deutso Gobernu zentralari. “Zentro horreetan 60 egunez egotera behartzen jake, egin daben gauza bakarra akats administratiboa danean, bertako egoiliar batentzat hori isuna baino izango ez litzateken arren”. Etorrinen edo errefuxiatuen kasuan, barriz, “eskubideak zapaltzeko” edegiten dan atea da. Isasik esan dauenez, talde horreetatik gertu dagozan erakundeek “astinaldiak, deportazioak, higie eta osasun zerbitzu faltea, irregulartasun juridikoak” eta baita adinbakoei eta haurdun dagozan emakumeei eragindako tratu “bihozbakoa” be salatu ditue.

Testuaren alde agertu diran batzarretako gainerako taldeak –EAJ-PNV, PSE-EE eta EH Bildu– bat etorri dira esatean zentro horreetara –2.000 pertsona jasoteko ahalmena daben zazpi zentro dira– ailegetan diran pertsonak jasaten daben tratua “bihozbakoa” dala.

Juan Oterminek (PSE-EE) azaldu dauenez, bere taldea zentro horreen funtzionamentuaren kontra dago, “ez dabelako gizakiei jagoken duintasuna beteten”. “Ez da horrenbeste legezkontasun arazoa –PP taldeak eta Talde Mistoak esan daben moduan– justiziazko kontua baino”. Tamalez, “bertako baldintzak kartzeletako baldintzak baino gogorragoak dira”, esan dau.

Arantza Urkaregi EH Bilduk batzordean dauen bozeroalearen eretxiz, leku horreetan “ez dira giza eskubideak errespetetan”. Bertan dagozanak “ez dirala gaizkileak” eta “mugak gaintzeko askatasuna” bermatu behar jakela esan ostean, koalizino abertzalearen ordezkariak, “horren guztiaren azpian dagon arazoa Atzerritartasun Legea” dala esan dau.

Euzko Abertzaleak taldeak “legezkoaren eta gizatiarraren arteko bereizketea” egin gura izan dau. Zentro horreek “Europar Batasunaren exigentzia dira, eta horreen helburua, Europako lurra zapaltzen daben dokumentau bako pertsonak identifiketea da”. Dana dala, jeltzaleak itxiera eskatzearen alde agertu dira, “eraldaketea bilatzeko, horrek barra librea egon behar dala esan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

gura ez dauen arren”. Gorka Beitiaren berbetan, zentro horreetara heltzen diran pertsonak “ia kartzelakoa dan erregimenean” igaroten dabez hilebete bi, “nahiko funtzionamentu bihozbakoa” jasanez, adierazo dauenez.

Talde Mistoaren eta PPren eretxiz, Batzar Nagusien agindua betetea “Schengen espazioa ez betetea” izango litzateke. “Eskaria Europar Batasunari egin behar jako, holango zentroak herrialde guztietan dagozalako”, adierazo dau Eduardo Andrés popularrak, baina onartu dau zentroen funtzionamentuan “hobekuntzak” sartu daitezkezala, Espainiako CIEak “txarreen artean ez dagozan arren”. “Eskatzen danaren ondorioak balorau behar dira, erretorikak alde batera itzita. Herrialde guztietan dagoz, gobernuan batzuk edo besteak egonda be”, gehitu dau Arturo Aldecoak.

#### BARDINTASUENRAKO V. FORU PLANA

Batzorde berean, Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako diputatu andrea Podemos Bizkaia taldeak eskatuta agertu da, Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko Bardintasunerako IV. Foru Planaren ebaluazioa egiteko eta legealdi honetan bertan indarrean sartuko dan 2016-2021 hurrengo planaren eukiak, helburuak, baliabideak eta aurreikusitako ekintzak aurkezteko.

“Denpora gitxi barru” Batzar Nagusietan herritarrei zuzenduago egongo dan Bardintasunerako Foru Arau proiektua aurkeztuko dala gogoratu ostean, Laespadak esan dau “barne eragineko” V. Plana gauzatu ahal izateko hainbat sailtako “70 pertsona” ibili dirala beharrean. Legealdi honetarako “123 ekintza” aurrera eroatea aurreikusten da, indarkeria baztertzean zentrautako helburuagaz, “mikromatxismoetan” sakonduz. Bere berbetan, mikromatxismo horreek, “desbardintasunak gertetako oinarri diran gai informalagoak” dira. Ekintza horreen artean, Laespadak “maskulinitate barriak” lantzerantz bideratutakoak azpimarratu ditu. Horreen artean, “gizonezkoen rola eta estereotipoak apurtzeko 20 ekintza” gauzatuko dira. Hamar ekintza inguru gazteen “ko-hezkuntzea” lantzerantz bideratuko dira.

Aurreko planari –Bardintasunerako IV. Plana– jagokonez, Laespadak esan dauenez, indarrean egon dan lau urteetan, urtean batez beste “187 ekintza” gauzatu dira, “%96ko” betete maileagaz. Diputatuaren berbetan, plan horri esker, bardintasunerako prozesua “sendotu egin da, jenero ikuspegiak sartzeari jagokonez”. Lorpenen artean, diputatuak, ekintza kopuru handia eta horreen betete mailea, kontratuetako pleguetan bardintasunagaz erlazionatutako klausulak sartzea, enpresa publikoetarako eta pribaduetarako trakzioa eragiteko gaitasuna izatea, eta barne mailan “130 pertsonak” parte hartu daben metodologia diseinetzea azpimarratu ditu. 2015ean bakarrik, Aldundiak “211 bardintasun txosten” lortu ebazan, eta horreek eragina izan eben Foru Aldundiaren eta haren eskuetan dagozan soziedadeen barruko egituran.

#### ETXEBARRIKO EGUNEKO ZENTROA “2017KO LEHENENGO HIRUHILEKOAN” EDEGIKO DA

Beste alde batetik, aurretik egin dan Gizarte Ekintzako batzordeak Isabel Sánchez Robles Foru diputatuaren agerraldia izan dau, Talde Mistoak eskatuta, Etxebarriko Eguneko Zentroaren edegitearen gaineko azalpenak emoteko. Gizarte Ekintzako Foru diputatuak iragarri dauenez, “2017ko lehenengo hiruhilekoan” inauguratuko da. Zentroa, Aldundiaren esku dagozan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Eguneko Zentroen “eredu klasikotik iges egiteko” mugarrizko izango da. “Barrikuntza moduan”, “mendekotasunaren prebentzioan eta autonomia pertsonalaren sustapenean” pentsautako “arretarako formula barria” probetako baliokoa da.

Gogoratu dauenez, Azpiegiturak erakundeak uda ostean amaitu ebazan Etxebarriko “Autonomia Pertsonalaren Sustapenerako Zentroaren” obrak, eta Aldundia orain kontratazino prozesua martxan jarteko “prest” dago, zentroaren kudeaketea agintzeko eta, holan, “geroago lurraldeko beste zentro batzuetara zabaldu daitekeen” eredu probetako baliokoa dauen zentro “aitzindaria” martxan jarteko.

Sánchez Roblesek zerbitzua martxan jarteko itxaron izana justifiketako orduan esan dau Foru Aldundiak, ezer baino lehen, Etxebarriko udalerriz Zerbitzuen Kartera onetsi ostean zelan geratzen zan eta gizarte zerbitzuen mapa barrian lurraldearen guneen araberrako zatiketea zein izango zan argitu gura ebala, Basauriz eta Etxebarri, orain, zerbitzu gune bakarra osatzen dabelako. “Hilebete apur batzuegatik, gure eretziz ez zan egokia” zentroa gai hori argitu aurretik edegitea, azaldu dau.

Arretea eskintzeko proposamen barria Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Etxebarriko Udalaren arteko akordioaren ostean sortu da. Etxebarriko Udalak zentroa egongo dan lokalak itzi deutzaz Foru Aldundiari, eta Aldundia arduratu da obrak egiteaz eta hemendik aurrerako kudeaketeagaz. Egitasmoa, herritarren, erakundeen eta alkartearen partaidetzea izan dauen prozesutik sortu da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
29/11/2016

## **Bizkaia pide el cierre de los Centros de Internamiento de Extranjeros**

La comisión de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de las Juntas Generales de Bizkaia ha acordado hoy, por mayoría absoluta, pedir el cierre de los siete Centros de Internamiento de Extranjeros (CIE) existentes en el Estado español. PNV, PSE-EE y EH Bildu han apoyado la proposición no de norma presentada por el grupo juntero Podemos Bizkaia en la que se denuncia la “vulneración grave de los derechos humanos”. Por su parte, PP y grupo Mixto se han opuesto al cierre.

La iniciativa del grupo morado se registró en Juntas Generales pocos días después de conocerse los incidentes acaecidos en el CIE de Barcelona en donde 70 personas protestaron por las condiciones “inhumanas”, denuncias que se sumaron a otras ocurridas con anterioridad en el centro de Aluche. Para el apoderado de Podemos Bizkaia Mikel Isasi, estos casos son dos ejemplos “dramáticos” de las condiciones en las que se retiene a estas personas que vienen pidiendo “un trato digno”. Reflejan una situación “injusta e insostenible que supone una clara vulneración de los Derechos Humanos”.

El apoderado de Podemos ha pedido al Gobierno central “cambiar la mirada” sobre las personas que entran en el Estado sin papeles. “Se les obliga a permanecer 60 días en estos centros cuando lo único que han cometido es una falta administrativa que en el caso de un residente sólo supondría una multa”. En cambio, para las personas migrantes o refugiadas es una puerta abierta a la “vulneración de derechos”. Según Isasi, organizaciones próximas a estos grupos han denunciado “palizas, deportaciones, falta de higiene y de servicios sanitarios, irregularidades jurídicas”, y hasta trato “inhumano” a menores y mujeres embarazadas.

El resto de grupos junteros que han apoyado el texto - PNV, PSE-EE y EH Bildu- han coincidido en señalar que el trato recibido por las personas que llegan a estos centros – un total de siete con capacidad para 2.000 personas- es “inhumano”.

Juan Otermin (PSE-EE) ha explicado que su grupo rechaza el funcionamiento de estos centros porque “no cumplen con la dignidad humana”. “No es tanto un problema de legalidad -como apuntaban PP y grupo Mixto- sino un asunto de justicia”. “Sus condiciones son peores que los centros penitenciarios” ha lamentado.

Para la portavoz de EH Bildu en la comisión, Arantza Urkaregi, en estos lugares “no se respetan los derechos humanos”. Tras decir que sus moradores “no son delincuentes” y se les debe garantizar “libertad para traspasar fronteras”, la representante de la coalición abertzale ha dicho que “el problema que subyace es la Ley de Extranjería”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

El grupo juntero Nacionalistas Vascos ha querido hacer una “distinción entre lo legal y lo humano”. Estos centros son una “exigencia de la UE que tiene como objetivo identificar a personas indocumentadas” que pisan suelo europeo, si bien los jeltzales se han mostrado a favor de pedir el cierre para buscar una “transformación” del modelo, “sin que suponga barra libre” para entrar en Europa. Según Gorka Beitia, las personas que acceden a estos centros se tiran dos meses en un “régimen casi carcelario” bajo un funcionamiento “bastante inhumano”, ha descrito.

Para el grupo Mixto y PP, cumplir con el mandato de las Juntas Generales sería “dejar de cumplir el espacio Schengen”. “Habría que instar a la UE porque este tipo de centros están en todos los países”, ha sostenido el popular Eduardo Andrés quien ha admitido que se pueden incorporar “mejoras” en su funcionamiento, aunque los CIEs de España “no están entre los peores”. “Hay que valorar las consecuencias de lo que se pide y dejarse de retóricas. Existen en todos los países gobierne quien gobierne”, ha añadido Arturo Aldecoa.

## V PLAN FORAL DE IGUALDAD

En la misma comisión, la diputada de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido, a petición de Podemos Bizkaia, para ofrecer una evaluación del IV Plan Foral para la Igualdad entre hombres y mujeres en la Diputación, así como para presentar las acciones y objetivos previstos del siguiente plan que estará vigente esta legislatura durante el periodo 2016-2019.

Después de recordar que “en breve” presentarán en Juntas Generales el proyecto de Norma Foral de Igualdad que irá más dirigida a la ciudadanía, Laespada ha señalado que la elaboración del V Plan de Igualdad, de “impacto más interno”, ha sido posible gracias al trabajo interdepartamental de “70 personas”. Para esta legislatura, esperan desarrollar “123 acciones” con objetivos centrados en la erradicación de la violencia a través de incidir en los “micromachismos”, que ha definido como “aquellos temas más informales que sirven de base para que se produzcan desigualdades”. Entre sus acciones, Laespada ha subrayado las destinadas a trabajar las “nuevas masculinidades”, en donde se desarrollarán “20 acciones” para “romper con los roles y estereotipos de los hombres”. Una decena de acciones irán dirigidas a trabajar la “coeducación” juvenil.

En lo que respecta al plan anterior - el IV Plan de Igualdad-, Laespada ha señalado que en los cuatro años que ha estado vigente, se han desarrollado una media anual de “187 acciones” con un grado de ejecución del “96%”. Este plan ha servido para “consolidar – según ella- el proceso de igualdad en relación a la introducción de perspectivas de género”. Entre los logros la diputada ha mencionado también el alto número de acciones y su nivel de ejecución, la incorporación de cláusulas de igualdad en pliegos contractuales, la facultad de servir para traccionar a empresas públicas y privadas, y el diseño de una metodología en la que han participado “130 personas” a nivel interno.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Solo en 2015, la Diputación alcanzó la cifra de “211 informes de igualdad” que impactaron en la estructura interna de la Institución foral y sus sociedades.

## CENTRO DE DÍA DE ETXEBARRI, APERTURA “EN EL PRIMER TRIMESTRE DE 2017”

Por otro lado, en la comisión de Acción Social celebrada anteriormente, ha comparecido a petición del grupo Mixto Isabel Sánchez Robles en relación a la apertura del Centro de Día de Etxebarri. La diputada foral de Acción Social ha anunciado que su inauguración se producirá “en el primer trimestre de 2017”. El centro será la piedra de toque para “huir del modelo clásico” de Centro de Día de la Diputación. “Como novedad”, ha dicho, servirá para ensayar una “nueva fórmula de atención” pensada “en la prevención de la dependencia y en la promoción de la autonomía personal”.

Según ha recordado, Azpiegiturak concluyó las obras del "Centro de Promoción de la Autonomía Personal" de Etxebarri después del verano y la Diputación está ahora “dispuesta” a poner en marcha el proceso de contratación para encomendar su gestión y arrancar así un centro “pionero” que servirá para testar un modelo que “pudiera extenderse después a otros centros del territorio”.

Sánchez Robles ha justificado la espera para abrir el servicio, en que la Institución foral ha querido primero que se aclarase cómo quedaba la localidad de Etxebarri, con la aprobación de la Cartera de Servicios y la nueva zonificación del territorio, en el nuevo mapa de servicios sociales, ya que Basauri y Etxebarri conforman ahora una zona de servicios única. “Por unos meses no parecía conveniente” abrir el centro sin esperar a que se definiera esta cuestión, ha explicado.

La nueva propuesta asistencial es fruto de un acuerdo entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Etxebarri. El consistorio etxebarritarra ha cedido los locales en los que se ubicará el centro al ente foral, y este se ha ocupado de la realización de las obras y de su futura gestión. El proyecto nace de un proceso de participación previo en el que han intervenido vecinos, entidades y asociaciones.